

MENOSCA **espedizioa**

**Euskal Kostaldeko
erromanizazioa lantzeko
heziketa-programa**

:: ezaugarri nagusiak

Hartzaileak: **DBH**-ko ikasleak
Programaren iraupena: 2 egun
Gehienez 28 ikasle eta gutxienez 15
Kokapena: **Zarautzen** edo zure ikastetxean
Metodologia: **e-learning** eta **m-learning**

:: aurkezpena

Badirudi **Menosca**, euskal kostaldeko asentamendu erromatarra, Pagoeta mendiak eta inguruko kostaldeko herriek osatzen duten lurraldean kokatzen dela. Menosca lurraldea gune gisa izanaz, erromanizazioa aztertzea dugu helburutzat Menosca Espedizioa heziketa programa honekin. Horretarako, **Zarauzko Arte eta Historia Museoa** eta Menoscako lurretan aurki daitezkeen ondare eta arkeologia aztarnak ikertuko ditugu.

E-LEARNING ETA M-LEARNING METODOLOGIA

Ikasketa prozesu hau gauzatzeko teknologi mugikorak erabiliko dira, **PDA** eta **GPS**-ak, eta **Internet** izango da euskarri nagusia. Teknologi berrien bitartez ikasleen partaidetza indartuko da eta emaitza interesgarriak lortuko dira. Ikasleek, programaren amaieran, beraien lana web gunean argitaratuko dute: <http://heziketa.menosca.com>

Menosca Espedizioa UPV/EHU-ko Berril@b taldearen ikerketa eta garapeneko proiektu baten emaitza da. Berril@b-ek Zarauzko Arte eta Historia Museorekin elkarlanean dihardu heziketa programa berritzaile honen jarraipena egin ahal izateko, eta lan hau posible izango da ikastetxeek beteko dituzten ebaluaketengatik. Bi eguneko esperientzia honetan ikasleek burutuko dituzten ariketen artean antezlan bat dago, Menoscako lurretan zehar espedizioa, museora bisita eta ondorio lan bat garatzea eta aurkeztea.

Menosca Espedizioaren unitate didaktikoa deskargatzea gomendatzen dizugu programari buruzko informazio guztia eskuratzeko. Deskarga burutzeko sartu: <http://heziketa.menosca.com>

:: ekintza osagarriak

Surf, trekking Zarautz-Getaria, piragua edo barkuan bira.

:: programa burutzeko aukerak

- A aukera: 2 egun Zarautzen Igerain aterpetxean gaua igaroaz.
- B aukera: 2 egun Zarautzen gaua igaro gabe.
- C aukera: Lehenengo eguna zure ikastetxean eta bigarregoa Zarautzen.
- D aukera: Bi egunetatik goiz bat ikastetxetik kanpo.

:: prezioa

- 4 €/ikasle (aterpetxea, jatorduak, garraioa eta ekintza osagarriak aparte).
- 0 €/irakasle.

:: erreserbak

Zarauzko Arte eta Historia Museoa
Tel. 943835281
(11:00-14:00 eta 15:30-18:30etara)
info@menosca.com

Proiektuaren sustatzaileak:



Santa Maria la Real
Zarauzko arkeologia eta monumentu multzoa
Conjunto arqueológico monumental de Zarautz



ZARAUZKO UDALA
KULTURA SAILA



JARDUERA HONEK GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN LANIKIDETZA DU
ACTIVIDAD REALIZADA CON LA COLABORACION DE LA DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA



euskal herriko unibertsitatea
universidad del país vasco